

Urdiain. 1968. Otsailak 16

Politeneko famili maiteari : agur.

Artu ditugu Arneguy'ko lerroak. Ama ez huntsa izan delako berriak tristatu gaitu; baina ikusten dugunez onera eman du. Agian, geiagorik gabe kasatuko zako. Gure goraintzi oberenak eta otoitz eginen dugu.

Lafite jaunaren lerro politak ere, artetik. Aspaldi ez dugu elkar ikusi. Eta ilabete huntan ere ez naiz Donostira abian. Ori bai, adreza nahi nuke. Ene ustez Uztaritz'en bizi da bana beste xehetasunik ez dut. Beraz, adreza bialtzen ba diazute biziki estimatuko dautzuet.

Zuen misionestak ere ari karraskan beti? Dena Jainko hunaren ohoretan izan dailela. Eta jiten zauzkitzuelarik ene goraintziak.

Eta besterik ez gaurkotz. Jakin zazue osagarrian eta eritasunean oroitzen dela zuetaz zuen adiskide

